

Jardunaldiak eta bisitak

1. mailako ikasleen harrera egitasmoa

Irailaren lehen astean, zuzendaritzak Harrera Egitasmo bat antolatu zuen ikasturte honetako ikasle berrientzat; egitasmoak 12 ordu izan zituen, eta 140 ikaslek hartu zuten parte. Egitasmoan hainbat enpresak, ikasle ohiek, unibertsitateko liburutegiak eta ikastegiko irakasleek parte hartu zuten, eta graduatu orok izan beharreko hainbat gaitasun landu zituzten, bereziki ingeniartzaren eremuan: besteak beste, talde lana, arazoei irtenbide bat ematea, ahozko aurkezpenak egitea, lidergoa edo informazio baliabideen erabilera egokia; eta ingeniartzako ikasketek eskaintzen dituzten aukera ugariak azaldu zitzaizkien.



Errektorearen eta bere taldeko kideen bisita Eskolara ikastegian bategitea azaltzeko.

Errektoreak irailaren 18an bisitatu gintuen laster egingo den Ikastegien bategitea nolakoa izango den eta gure Eskolan zer eragin izango duen azaltzeko. Ekitaldia Eskolako Ekitaldi aretoan egin zen. Errektorearen azalpenaren ondoren, galdera txanda bat ireki zen, eta bertan zirenek Errektoreak aintzat hartu zituen proposamenak egin zituzten.



Ondoren egin zen Campuseko Batzarrean onartu egin zuten Ikastegien bategite proposamena: 16 aldeko boto, 10 aurkako boto eta 2 abstentzio.

Costa Ricako Alajuelako Unibertsitate Teknikoko irakasleek Eskola bisitatu dute.

Marvin Segura Trejos, Ingeniaritza Elektromekanikoko Zuzendari Diplomaduna, Oscar Quirós Morera, Ingeniaritza Elektromekanikoko Batxilergoko Zuzendaria eta Manuel Río, pneumatika, hidraulika eta Universidad Técnica Nacional de Sede Centraleko (Costa Rica) irakasleak irailean etorri ziren IUEko instalazioak eta laborategiak ikustera, baita harremanak sortzera, gure esperientzia zein den ezagutzera eta haiena zabaltzera ere, euren Unibertsitatean 2000 m² bat dituen eraikin bat eraikitzen ari baitira, laborategietarako. Harremana SMCren bitartez sortu da, baita Costa Ricako unibertsitate horri IUEk bi zelula malgu saldu dizkiolako ere.



Arketc-Gest 12.0 softwarea erabiltzen ikasteko jardunaldia


“Proiektuen Kudeaketa” irakasgaiaren barruan online ikastaro trinko bat eman da GEST 12.0. Proiektuen kudeaketako aurrekontu konplexuak programa erabiltzen ikasteko. Ikastaroa informatikako 1.5 ikasgelan eman zen, urriaren 6an; irakaslea David Sánchez Romo izan zen, eta Ortzi Akizu Gardokik antolatu zuen, Eskolako Adierazpen Grafikoko saileko irakasleak eta ARKTEC SA enpresako ordezkari Antonio Fernández Gonzálezek. Urruneko ikastaroa Arkteceek Madrilen duen egoitzatik eman da, helbide honen bitartez <http://eprints.rclis.org/6571/1/EPI-rmelero.pdf>

Jarduera oso arina eta eduki askokoa izan da, eta hari esker, ikasleek programa honekin aurrekontuak egiten ikasi dute. Honako hauen erakustaldia egin zen: prezio bakuneko datu-baseak, deskonposatua eta parametrikokoak, aurrekontuak, ziurtagiriak eta denboraren kudeaketa Gantt diagramekin.



Hitzaldia: Espazioko ikerketaren erronka teknologikoak: WSO-UV

Ana Inés Gómez doktoreak, 2014ko Berrikuntza arloko Bikaintasuneko Heraclio Alfaro Sariak, Arabako Foru Aldundiak emandako saria, hitzaldi bat eman zuen Espazioko Ikerketaren Erronka Teknologikoei buruz: WOS-UV, urriaren 21ean, goizeko 12:00etan, Eskolako ekitaldi aretoan. Ana Inés Gómez de Castro doktorea Madrilgo Universidad Complutenseko irakasle titularra da, eta World Space Observatory-Ultraviolet (WSO-UV) Proiektuaren Zuzendari Zientifikoa Espainian, Errusiako Espazioko Agentzia (ROSCOMOS) buru den misio zientifikoa, estatuaren parte hartze handia duena, tresna-baliabideetan nahiz misioaren eta programa zientifikoaren kontrolean. Halaber, Madrilgo Universidad Complutenseko Espazioko Astronomiaren ikerketa taldearen zuzendaria da. Oso solasaldi interesgarria izan nola ikasleentzat hala irakasleentzat, baita bertaratu ziren guztientzat ere.



Emakumeak Vitoria-Gasteizeko Ingeniaritza Eskolan: LANEKO ESPERIENTZIAK

Eskolak 50 urtean izan dituen emakumezko ingeniari tituludunen esperientziak ezagutzera ematea.

Urriaren 22an, Eskolako gradu aretoan, Ingeniaritza Eskolako emakumeen lehen topaketa egin zen; ekitaldia Inmaculada Tazok antolatu zuen, Akademia Antolakuntzako zuzendariordeak eta Emakunderekin lankidetzan, 2014. urteko Berdintasunaren Foroaren barruan. Eskolako 4 tituludunek beren laneko esperientziaren berri eman ziguten, Eskolatik atera eta gaur arte bizi izandakoa. Eskerrak eman nahi dizkiogu Raquel Romero, Silvia Terreros, Miren Lazpiur eta Concho Laordeni parte hartzeagatik eta laneko esperientzia partekatzeagatik.



3. Jardunaldiak: Proiektuen kudeaketa Geomatika eta Topografiako Ingeniaritzan

Jardunaldia Orzi Akizuk eta Francisco Madridek antolatu zuten, Eskolako Adierazpen Grafikoko sailekoak, Topografiako Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofizialaren lankidetzarekin; azaroaren 3an egin zen, eta Geomatika eta Topografia Ingeniaritzako Graduako 27 ikaslek parte hartu zuten. Hizlariak izan ziren: Jose R. Villalba, José A. Andrés, Juan Mardones, Juan D. Marinas eta Itziar Perez. Jardunaldiak helburu nagusi batzuk izan zituen: Topografiako Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofiziala ezagutzera ematea, baita hark dituen eginkizunak ere, batik bat enplegarritasunaren gailan, Geomatika eta Topografiarekin zerikusia duten proiektuen kudeaketako kasu praktikoak erakustea eta lan arloan txertatzeko dauden aukerak azaltzea.

2014ko graduazio ekitaldia

Urriaren 30ean, arratsaldeko zazpjetatik aurrera, Ingeniaritzako Eskolako Ekitaldi Aretoan diplomak banatu zitzaizkien 2013/14 ikastaroko tituludunei; aurten 249 izan dira egresatuak. Ekitaldian honako agintari hauek izan ziren: hiriko Alkate Javier Maroto jauna, Arabako Ahalduen Nagusi Javier de Andrés jauna, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Zuzendari Javier Alonso jauna, eta ekitaldiaren buru, UPV/EHUko Errektore Iñaki Goirizelaia jauna.

Oraingo honetan ohorezko diplomak ere banatu zitzaizkien, 50 urteurrena zela-eta, Peritu Industrialen lehen promozioeko tituludunei; ondoren, haien ordezkari gisa, Víctor A. Suescunek hitz egin zuen. Era berean, ikasketa espediente onenen sariak banatu ziren, eta Borja Pérez egresatuak ikasketa urteetan Eskolaz izan zuen ikuspegia azaldu, eta etorkizuneko asmoen berri eman zuen. Ekitaldia amaitzeko, esker ona adierazi zitzaion Michelin enpresari gure ikasleek eginiko praktika boluntarioetan laguntzeagatik. Enpresaren izenean, Amadeo Álvarez Vitoria-Gasteizeko fabrikako zuzendariak hitz batzuk esan zituen.

Ekitaldiaren bideoa helbide honetan ikus daiteke:

<http://ehutb.ehu.es/es/video/index/uuid/5461c1c37bdbc.html>



UPV/EHUko Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren XIV. Astea

Azaroaren 6a eta 8a bitartean Zientziaren eta Teknologiaren Astea egin zen. Aurten standak Foru plazan kokatutako karpa batean ipini ziren. Publiko guztiarentzat irekitako ekitaldi orokor bat izan zen, eta Eskolako hainbat sailek hartu zuten parte: Fisika Aplikatua, Adierazpen Grafikoa eta MMI eta Materialen Z. Topografia Atala. Informazio gehiago: <http://t.co/NSi2XG4dJh>



Fisika Aplikatuko sailak honako izenburu hau zuen tailer bat egin zuen: “Magia dirudi, Fisika da”, 1 orduko hiru saiotan egin zutena, sail horrek Eskolan dituen laborategietan; batik bat elektromagnetismoaren gaia landu zuten bost esperimenturen bitartez.

Geomatikako standean, ikasle talde batek hainbat proiektu landu zituen, Geomatika eta Topografiarekin lotutako galdera lehiaketa bat, erromatar monumentu bat 3Dn bistaratzea, errealitate handituaren bitartez, tabletak edo telefono mugikorrak erabiliz, mapak sortzeko hegazkinetatik hartutako 3D argazkien bistaratzea eta gonbidapen bat, mapak erabiliz, hirian 1825etik gaur arte zer den berria eta zer zaharra aurkitzeko. Horretaz gainera, Geo-Delitoren hitzaldia: IGSak Ikerketa Kriminalean.



Datu Pertsonalen segurtasun eta babeserako VI. jardunaldia

Azaroaren 12an, goizez, Eskolako gradu aretoan, Datuen segurtasun eta babeserako VI. Jardunaldia egin zen, Hizkuntzen eta Sistema Informatikoen (LSI) sailak eta Sistemen Ingeniaritza eta Automatika (DISA) sailak antolatuta – IUE - Vitoria-Gasteiz, Datuen Babeserako Euskal Agentziarekin lankidetzan (AVDP) Vitoria-Gasteiz, Filosofia Institutua – IZGK Madril. Erakustaldi hauek egin ziren: Datu pertsonalen babesa eta Gauzen Interneta, Big Dataren alderdi etikoak, Segurtasuna Android gailuetan, Komunikazio segururako protokoloak, Orain ikusten nauzu: esteganografia eta hacking etikoaren teknikak.

Informazio gehiago: <http://lsi.vc.ehu.es/wdocs/>

Bisita Sincrotón Albara

Jon Ladrera Geomatika eta Topografia Ingeniaritzako graduatuak, Sincrotón Alban praktikak egin ondoren, Cerdanyola del Vallés, Bartzelona, http://www.gencat.cat/web/multimedia/cas/sincrotro/index_htm.htm eta Gradu Amaierako Lana "Vibraciones en el Sincrotón de Alba" defenditu ondoren, gonbita luzatu zigun bertako instalazioak ezagutzeko, haietan ari baita lanean gaur egun. Eskolako zuzendaritza taldeko kide batzuek, graduetako azken ikasturtetako 12 ikaslek eta ordezkari eskaintza onartu genuen, eta Albako instalazio miragarriak ezagutu genituen azaroaren 11n.




Auskultazio hitzaldia

Azaroaren 13an eta MMI eta Materialen Zientzia sailak antolatuta, Topografia Atala, informazio hitzaldi bat eman zuen Javier Peñafielek auskultazioari buruz; Javier oso ezaguna da lanbidean, Topconeko zuzendari komertziala baita, eta aditu handi bat materiari urteetan eskaintako arduraldi profesionalagatik. Hitzaldia, batik bat, Geomatika eta Topografiako Graduko ikasleentzat zen, eta 40 bat lagun izan ziren bertan.

Auskultazioa zer den azaldu zuen, zergatik egiten den eta zer elementu auskultatu behar diren, aldez aurreko gogoetak eta azterlanak, baita sistema automatikoen sistema tradizionalen ondoan dituzten abantailak ere.



Wind Energy Lectures



WIND ENERGY LECTURES

reen energy aldea

November 26th, Wednesday 2014

11:30-11:35
Opening by UPV/EHU-G.E.T.
Javier Sancho
Dean of the University College of Engineering
Vitoria-Gasteiz

11:35-12:20
INTERNATIONAL RENEWABLE ENERGY CENTRE
Applied Aerodynamics to Blades
Xabier Munduate
Aerodynamic & Aeroelastic Section Leader
R&D Wind Turbine CENER

12:20-13:05
DTU WIND ENERGY DEPARTMENT OF WIND ENERGY
Fluid Mechanics related to Wind Energy
Jens N. Sørensen
University of Denmark-DTU Wind Energy

13:05-13:15
Time for discussion and conclusions

Event sponsored by:
University of the Basque Country:

UPV EHU

PLACE: University College of Engineering Vitoria-Gasteiz
Nieves Cano 12, 01000, Vitoria-Gasteiz

B200M, Sava Arribas, 1st Floor

AUDIENCE: Bachelor, Master and PhD Students or Researchers interested in Wind Energy (Access Free)

FOR MORE INFORMATION: lna.fernandez@ehu.es or mjgo.erasf@ehu.es (+34 945913293)


Azaroaren 26an, 11:30ean, Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolako Anfiteatroan (lehen solairua), 45 minutuko bi hitzaldiko workshop bat antolatu zuten, aerogeneradoreetara aplikatutako fluidoen mekanikarekin eta aerodinamikarekin lotuak. Fluid Mechanics related to Wind Energy, Jens Sorensenek emana, DTUko Fluidoan Mekanikako saileko zuzendaria (Danmarks Tekniske Unibersitet) eta Applied Aerodynamics to blades, Xabier Munduatek emana, Aerodynamic & Aeroelastic Section Leader R&D Wind Turbine, CENERekoa (Energia Berriztagarrien Zentro Nazionala).



Jundizeko biometanizazio eta konpostaje plantara eginiko bisita

Azaroaren 25ean eta 27an atek zabaltzeko eguna izan zuten Jundizeko Biometanizazio eta konpostaje plantan. Bertara gure Eskolako 4. urteko ikasleak joan ziren, gehienak Industria Kimikako Ingeniaritza Graduak.

Euskararen nazioarteko eguna



Eskolako euskara batzordeak Euskararen Nazioarteko eguna ospatzeko, abenduaren 3an, txokolatada bat eta euskarazko liburuaren erakusketa bat antolatu zuen; UPV/EHUko argitalpen zerbitzuak nahiz EUEk laga zizkiguten liburuak. Ekitaldia Eskolako hallean egin zen; ikasle, irakasle eta AZP langile ugari elkartu ziren bertan. Eskerrik asko etorri zireten guztioi!



INGENIARITZA IRAUNKORRA, Jardunaldia eta Erakusketa

Ingeniaritza Iraunkorreko Produktuen Jardunaldi eta Erakusketaren bitartez, aztarna ekologiko txikiena duen ingeniartzaren kultura zabaldu nahi dugu, bai UPV/EHUko ikasle eta langileen artean, bai Vitoria-Gasteizeko enpresa eta herritarren artean, eta enpresa iraunkorrak unibertsitate arlora hurbil daitezzen bultzatu.

Eskolako Ekoscan hobekuntza taldeak abenduaren 11n Eskolako ekitaldi aretoan egin zen Iraunkortasun Jardunaldia antolatu zuen. Inaugurazioa Javier Sancho jaunak egin zuen, Eskolako zuzendariak; Ingeniaritza Iraunkorrak Eskolan dituen helburu eta erronkei buruz hitz egin zigun.

**INGENIARITZA
JASANGARRIA**
Jardunaldi eta Erakusketa



**INGENIERÍA
SOSTENIBLE**
Jornada y Exposición




Ondoren, UPV/EHUko Gizarte Erantzukizuneko Zuzendari Iratxe Amianok UPV/EHUko Iraunkortasun Bulegoaren berri eman zuen, haren helburuak eta egingizunak zein diren zehazteko.

Jardunaldiko hitzaldiak hauek izan ziren: Ekodiseinua, José M. Fernandez Alcalá, Ihobe enpresakoa; Iraunkortasunari lotutako araudizko erreferenteak, Luz Emparanza andrea, Aenor; Iraunkortasunaren ezarpena ingeniartzako enpresan, Santiago Azcarraga, Aernnovakoa eta Alda Rebollo, Michelínekkoa; eta Ingeniaritza Iraunkor bat eraikitzen, Jordi Oliver eta Markel Cormenzana, Inéditekoak. Jardunaldia itxi zuten Blanca Díaz de Duranak, Gasteizeko Udaleko Ingurumen Saileko Arduradun Teknikoak eta Arantxa Beitiak, Arabako Campuseko Garapenerako Zuzendariak.



Jardunaldiaren ondoren, Ingeniaritza Iraunkorra erabiliz egindako produktuen erakusketaren inaugurazioa egin zen. Erakustaldiak iraun zuen zortzi egunetan, Eskolako pasabideak museo bihurtu ziren ikasle, unibertsitateko langile eta herritar guzientzat; enpresa handi eta txikiek, denak elkartuta, modu iraunkorrean eginiko objektuak eta zerbitzuak erakutsi zizkiguten. Erakusketan parte hartu zuten enpresak: A&B Laboratorios, Aernova, alSol, Axalko, Ayto de Vitoria, Bellota, Callaghan+CTR, Clean-biotec, e-Betez, Ecoalf+CTR, Ecoparc, Ihobe, Inédit, Ixi Wood, Lufe, Luznor, Michelin, Ofita, Optimitive, PFERD, Renault, Skuibo, Termogenik, Wattio eta Yor.



Jardunaldiak arrakasta handia izan zuen publikoari dagokionez, 180 pertsonak parte hartu baitzuten, Eskolako ikasle, enpresetako ordezkari, udal, beste unibertsitate ikastegi eta politeknikoetatik etorriak. Oihartzuna ere izan zuen komunikabideetan: SER katea, Radio Vitoria eta Arabako Diario de Noticias egunkarian.

Sariak eta aitortzak

Francisco Coello Nazioarteko XV. Saria. Kartografia eta Geomatika arloan eginiko Proiektu, Karrera Amaierako Lan eta Doktorego Tesientzat.

Sandra Uceda Quierósek, Eskolako graduatuak, Estatuko Karrera Amaierako Proiektu onenari ematen zaion Francisco Coello saria lortu du Kartografia eta Geomatika arloan. <http://eprints.rclis.org/6571/1/EPI-rmelero.pdf>

Patente batentzako saria.

Vitoria-Gasteizko IUEko ikasle Rubén Rey, Jon Ander Pipaón, Iñigo Ruiz de Olano eta Ángel Eugenio Prietok akzesit sari bat lortu dute Ingeniaritzetan eta Arkitekturan, beren proiektuarekin UPV/EHUko irudia hobekien zabaldu duten Ikasleen Sarien V. Deialdiaren barruan: “Zaborrak botatzeko sistema edukiontzi bati ahokatuta”. Patente

eta Marken Espainiar Bulegoan (OEPM) aurkeztutako proiektu bat da; zaborra botatzeko modu errazago bat proposatzen du, egitekoa herritar guztiei hurbiltzeko inolako bazterketarik egin gabe.

Sari banaketa abenduaren 15ean egin zen, Bizkaia Aretoan.



Funtsean, errail batzuk dituen hodi batek osatzen du proiektua. Errailei esker, hondakinak utzi beharreko kutxak biratu egingo du, harik eta irauli, hondakinak edukiontzi barrura bota arte. Kutxa hori, hain zuzen, sistema hidrauliko bati esker igoko da; hala, biradera edo burdinaga baten bitartez indar pixka bat eginda, hondakinak igo egingo dira.

Sistema berri honekin, hainbat gauza saihestuko dira: gehiegizko ahaleginak egin beharra, gaur egungo edukiontzien estalkiek egiten duten moduan harrapatuta geratzea, irekitzeko pedalari ematean istripuak gertatzea, hondakinak sartzean usain txarra zabaltzea... Gainera, edukiontzi handiagoak eraikitzeak aukera ere egongo litzateke, horrek dakartzan ondorio positibo guztiekin.

Jarduera akademikoa

Hezkuntza Lankidetzarako Programari buruzko informazioa (Praktika boluntarioak enpresetan, 13-14 ikasturtea.

Eskolako web orrian argitaratu da iazko Enpresetan Praktika Boluntarioak egiteko programari buruzko txostena.

http://www.ingeniaritza-gasteiz.ehu.es/p232-content/es/contenidos/informacion/ingtop_empresas/es_relacion/adjuntos/Informe%20practicass%20Empresa%202013-2014.pdf.

Datu garrantzitsu gisa, komeni da azpimarratzea 181 hitzarmen sinatu zirela; haiei erantsi behar zaizkie ikastegian kudeatutako Lehen Aukera 12 beka. Ondorioz, ikasleen % 85ek praktikak egitea lortu zuen. Enpresen gogobetetze osoa 4,42koa da 5 punturen gain, eta ikasleena, berriz, 3,62, 4 punturen gain.

Gainera, web orrian eskuragarri dago egresatuen gogobetetze txostena, titulua eskatzen den unean betetzen diren inkestetatik landuta.

Argitalpena: Berrikuntza eta kalitatea UPV/EHUko unibertsitate graduetan.

Argitalpen honetan, 2013ko azaroko IKD-Jendartea Jardunaldietan aurkeztu zituzten ekarpenak daude jasota. Bilkura horren xedea zen elkargune izatea, UPV/EHUK irakaskuntzaren, ikaskuntzaren eta titulu berrien kudeaketaren arloetan garatu dituen berrikuntzako eta kalitatearen kudeaketako esperientziak trukatzeko eta eztabaidatzeko. Hartan hitzaldi hau agertzen da: "Hobekuntzarako ekintza planak Vitoria-Gasteizeko Ingeniaritza Unibertsitate Eskolako graduen akreditazioa segurtatzeko"; sinatzaileak dira J. Sancho, M.I. Tazo, J.A. Ramos, R. Delgado, J.J. Arrugaeta, E. Apiñániz, J.I. Ochoa de Eribe eta M.M. López de Arcaute. Lan horren bitartez Gasteizeko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolako zuzendaritza taldeak egiten duen lanaren berri eman nahi da. Erabilitako laneko giden artean, ikastegia hobetzeko dagoen ilusioa eta gogoia adieraz daitezke, baita Eskolako langileekiko dagoen koordinazioa ekintza guztiak burutu ahal izateko, eta konpromiso argia egindako lan guztia bistaratu eta ezagutzera emateko, batik bat, web orriaren bitartez.

Bestelako jarduerak

Ikastegiko **Twitterra** prestatuta dago; jadanik 179 jarraitzaile ditu. Kudeatzailea Gurutz Sáez de Murrieta izango da. Hemen aurkituko gaituzu: <https://twitter.com/ingeniaritza> eta twitterretik hemen: @ingeniaritza.

Azken urteetan **Geomatikako** tituluan izan den matrikulazio baxua dela-eta, ekintza asko egiten ari dira, era askotakoak, titulua sustatu ahal izateko. Besteak beste, azpimarratzekoak: bilera birtual bat Topografia Eskola guztiekin, bilerak estatu mailako Geomatikako Eskolen Zuzendariekin, eta haietan egiaztatu da gainerako eskolen egoera gurearen antzekoa dela; komentatu egin da Ikasketa Planean aldaketa txiki batzuk egiteko aukera, eta, batez ere, Gradua gizarteari, enpresei eta etorkizuneko ikasleek ikusgarriago egiteko aukera. Hainbat bilera egin dira Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordearekin (Amaia Zárraga), Meatzaritza eta Metalurgia Ingeniaritza eta Materialen Zientzia sailarekin (M^a Luisa Palanques); Geomatika eta Topografia Graduako koordinatzailearekin (Karmele Artano) eta Arabako COITTeo presidenteari (J. Ricardo Villalba), eta, besteak beste, Bilboko gurasoentzako jardunaldi bat egiteko eta Graduako marketin azterketa bat egiteko aukera aipatu zen. Marketin azterketa hori C2 + i enpresaren ardura da.

Ekoscan Auditoria azaroaren 20an egin zen, eta inolako gorabeherarik gabe gainditu zen; hobekuntzarako egon litezkeen bideak zehaztu ziren.

Aurten ikastegiko 14 irakasle aurkeztu dira **Docentiaz** 14era. Zuzendaritza taldetik eskerrak eman nahi dizkiegu, kopuru horrekin Docentiaz akreditazioa lortu duten ikastegiko irakasleen % 30 gainditu baita jadanik.

Denok dakizuen bezala, aurten Eskolan ematen diren graduen akreditazioa gainditu behar dugu; horretarako, lehen urratsak eman, eta bilerak egin dira. Tituluen jarraipen txostenak egin dira titulazio koordinatzaileen laguntza eraginkorrari esker, eta Eskolako Batzarrak jadanik onartu du 2013/14 ikasturteko kudeaketa txostena.

UPV/EHUK Lizentzia eta Baimenen Prozedura berri bat landu du, haien kudeaketa bide telematikoa egin ahal izateko.

Urriaren 13a eta 17a bitartean hauteskundeak egin ziren Eskolako taldeko ordezkariak hautatzeko. Iraupena ikasturte batekoa izango da, eta haien eginkizunak hautatu dituzten ikasturtea amaitzean bukatuko dira.

Estibaliz Apiñanizek, Nazioarteko Harremanetako Zuzendariorde gisa, bilera bat egin zuen ikasleekin azaroaren 10ean, International Week dela eta. Eta azaroaren 26an informazio bilera bat egin zuen ikasleekin, bata gaztelaniaz eta bestea euskaraz, non Erasmus Programaren baldintzak eta aukerak azaldu zizkien, baita gainerako mugikortasun programen nondik norakoak ere.

Erakunde harremanak

Eskolako zuzendari Javier Sancho jauna Irakasle ikasketen Eskolako eta Enpresa ikasketen Eskolako eta Farmazia Fakultateko diplomen banaketara joan zen.



Eskola ere CEIAren 25 urteurrenean eta IDOMen 25 urteurrenean izan zen, Vitoria-Gasteizen.

Gainera, CODDIIren bileran ere izan zen (Ingeniaritza Informatikoko Eskoletako Zuzendarien Biltzarra); Cadizen izan zen, azaroaren 27 eta 28an. Kontuan hartuz egungo araudiak arautu gabeko ogibideei dagozkien graduak hiru urtera pasatzea utziko lukeela, aukera horri buruz eztabaidatu zuten Zuzendarien Biltzarrean; aho bateko jarrera izan zen egungo graduak 4 urtean mantentzea.